



historia El poblado de La Hoya fue descubierto en 1936 pero pasaron décadas antes de ser excavado por el Instituto Alavés de Arqueología (A. Llanos, 1973-1989) con el impulso y la financiación de la Diputación Foral de Álava. Los trabajos arqueológicos documentaron un gran asentamiento rodeado por una importante muralla, que fue habitado durante más de mil años, desde la época conocida como Bronce Final (1200 a.C.) hasta el final de la Edad del Hierro (unos 250 a.C.). Pese a su emplazamiento poco habitual en una zona llana, el poblado jugó un importante papel en la organización territorial y en el comercio del sur de Álava, especialmente al final de su dilatada existencia.

historia La Hoyako herrixka 1936an aurkitu zuten, baina hainbat hamarkada igaro ziren hura Arabako Arkeologia Institutuak induskatu zuenerako (A. Llanos, 1973-1989), Arabako Foru Aldundiaren bultzada eta finantzaketa lagun. Arkeologia lanet esker, harresi handi batez inguratutako bizileku bat dokumentatu zen, non jendea bizi izan baitzen mila urte baino gehiago, Brontze Aroaren bukaeratik (K.a. 1200) Burdin Aroaren bukaera arte (K.a. 250). Nahiz eta lautadan kokatuta egon –hori ez zen oso ohikoa– herrixka oso garrantzitsua izan zen lurraldearen antolamenduan eta Arabako hegoaldeko merkataritzan, batez ere haren irunaldi luzaren bukaeran.



La Hoyako herrixkaren interpretazio zentroa

La Hoyako bidea, z/g. LAGUARDIA

Udako ordutegia

(maiatza-iraila eta Pazko Astea Ostegun Gurenetik aurrera)
 Asteartetik larunbatera: 11:00-14:00 / 16:00-19:00
 Igande eta jaiegunetan: 11:00-14:00
 Astelehenetan itxita, (jaiegunetan izan ezik)
 Astelehena jaieguna izan bada, asteartean itxita

Neguko ordutegia

(urria-apirila)
 Asteartetik larunbatera: 11:00-15:00
 Igande eta jaiegunetan: 11:00-14:00
 Astelehenetan itxita, (jaiegunetan izan ezik)
 Astelehena jaieguna izan bada, asteartean itxita

DOAKO SARRERA. Tel. 945 621 122

Centro de interpretación del Poblado de La Hoya

Camino de La Hoya, s/n. LAGUARDIA

Horario de Verano

(mayo-septiembre y Semana de Pascua desde Jueves Santo):
 Martes a sábados: 11:00-14:00 / 16:00-19:00
 Domingos y Festivos: 11:00-14:00
 Lunes cerrado (excepto festivos)
 Martes después de lunes festivo, cerrado

Horario de invierno

(octubre-abril)
 Martes a sábados: 11:00-15:00
 Domingos y Festivos: 11:00-14:00
 Lunes cerrado (excepto festivos)
 Martes después de lunes festivo, cerrado

ENTRADA GRATUITA. Tel. 945 621 122



Arabako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

ezagutu descubre

LA HOYAKO HERRIXKA POBLADO DE LA HOYA



argibide gehiago - más información:

BIBAT. Arabako Arkeologia Museoa - Museo de Arqueología de Álava
 Aitzogile / Cuchillería, 54. 01001 Vitoria-Gasteiz
 t. 945 203 700

Hasierako aldiak (K.a. 1200-450)

Urte horietan izan zen herrixka okupatzeko lehen fase handia. Brontze Aroaren erdialde eta bukaeratik aurrera, inguruko herrixkek kanpoko eraginak jaso eta asimilatu zituzten, halaxe erakusten baitute material arkeologiko berreskuratuek.

Garai horretako bizilekuak elkarren ondoan altxatzen ziren, harresiari atxikiak eta herrixkaren erdigunea libre utzita. Jende horren lanabesak hezurrez eta suharriz eginak zeuden, baina brontzezko tresnak eta armak eta oinarrizko tekniken bidez eginiko zeramikak (behe tornuak eta labe arruntak, ontzi landugabe eta ilunak sortzen zituztenak) ere bazeuzkaten.

Etapas iniciales (1200-450 a.C.)

Entre esos años tiene lugar la primera gran fase de ocupación del poblado. Desde el Bronce Medio y Final las poblaciones del entorno reciben y asimilan diversos influjos externos, tal y como demuestran los materiales arqueológicos recuperados.

Las viviendas de esta época se construyen unas junto a otras, pegadas a la muralla y dejando libre el espacio central del poblado. El utillaje de estas gentes se componía de objetos de hueso y sílex, junto con herramientas y armas de bronce, además de cerámicas fabricadas con técnicas rudimentarias (tornos bajos y hornos sencillos que generaban recipientes bastos y de colores oscuros).



La Hoyaren aldi gorena (K.a. 450-250)

K.a. V. mendearen erdialdean, zerealak lantzean oinarritutako nekazaritza eta Ebro Haranetik iritsitako eragin zeltiberiarrei zor izan zitzaizen hein handi batean herrixkaren hazkundera eta eraldaketa.

Berrikuntza tekniko garrantzitsuak finkatu ziren, hala nola burdin metalurgia, eltzegileen tornu azkarra edo errota zirkularra asmatu izana. Haiei esker asko garatu zen merkataritza eta beste toki batzuetan eginiko produktuak sartu ziren.

Horrez gain, aldaketak egon ziren herrixkaren hirigintzan. Harresia indartu egin zen: haren ondoan espazio libre bat egin zen, defentsarako korridore gisa, eta jendea bizi zen gunea handitu eta etxadika antolatzen zuten kale zolatuekin.



Herrixkako hilerriak

Herrixkatik kanpo aurkitu dira haren nekropoliak. Haietariko batean, Piñuelasko dermioan, hainbat hilobi induskatu ziren, harrizko kutxen antzekoak (zistak). Haien barrualdean hildakoaren errautsak gordetzen ziren, hil opariekin eta hildakoaren ostilamendu deigarriekin batera. Aztertutako ia 60 hilobietan berreskuratutako objektuei esker, esan daiteke hildakoak borrokalariak zirela, haien ondasun preziatuenekin batera lurperatuak: arma aberaski apainduak, hildakoaren paparrekoak eta apaingarriak, zeramikazko ontziak hil opariekin, eta abar.

El apogeo de La Hoya (450-250 a.C.)

A mediados del siglo V a.C. culmina el proceso de crecimiento y transformación del poblado, en buena parte debido a una agricultura basada en el cultivo de cereales y a influencias de carácter celtibérico llegadas por el Valle del Ebro.

Se consolidan importantes innovaciones técnicas como la metalurgia del hierro, el torno rápido de alfarero o la invención del molino circular que provocan un importante desarrollo comercial y el acceso a productos manufacturados en otros lugares.

También se aprecian cambios en su configuración urbanística. La muralla se hace más potente creándose junto a ella un espacio libre a modo de corredor defensivo y el área habitada crece y se reorganiza en manzanas de casas con calles pavimentadas.

Suntsiketa eta uztea

K.a. IV. mendeko data zehaztugabe batean, herrixkari eraso egin zioten, suteak egon ziren eta haien ondorioz suntsitu egin zen. Zorigaitzoko gorabehera horrek erasoaren eszena dramatikoak fosildu zituen, eta arkeologoei aukera eman zien zehaztasun handiz dokumentatzeko zer objektu erabiltzen zituzten eta zein zen haien bizimodua; baita indarkeria seinaleak zeuzkaten gorpu batzuk berreskuratzeko ere.

Herrixka berriz ere eraiki zuten arren, ez zuen egundo ere berreskuratuko garai bateko distira.

K.a. III. mendean abandonatu zuten hango bizilagunek behin betiko, Laguardiako oraingo kokalekura lekuz aldatu ziren eta.

Los cementerios del poblado

Fuera del poblado se han localizado sus necrópolis. En una de ellas, en el término de Piñuelas, se excavaron numerosas tumbas semejando cajas de piedra (cistas) en cuyo interior se depositaban las cenizas de la persona fallecida, junto con ofrendas y llamativos ajuares personales. Los objetos recuperados en las casi 60 tumbas estudiadas permiten identificar a los muertos como guerreros enterrados con sus posesiones más preciadas: armas ricamente decoradas, broches y adornos personales, vasijas de cerámica con ofrendas, etc.



La destrucción y abandono

En una fecha sin precisar del siglo IV a.C., el poblado fue atacado, generándose un incendio que provocó su destrucción. Esta desgraciada circunstancia fosilizó escenas dramáticas del momento del asalto, permitiendo a los arqueólogos documentar con gran detalle los objetos que utilizaban y su estilo de vida e, incluso, recuperar algunos cadáveres con signos de violencia.

Aunque el poblado fue reconstruido, ya nunca recuperaría su antiguo esplendor. El abandono definitivo se produjo durante el siglo III a.C. con el traslado de sus habitantes al emplazamiento actual de Laguardia.



Aztarnategiko indusketatik ateratako materialak **Bibat, Arkeologia Museoaren** bigarren solairuan daude ikusgai. Hori bizitatzea gomendatzen dugu, horrela aztarnategiko ibilalditik ateratako informazioak osatu ahal izateko.



Los materiales procedentes de la excavación del yacimiento se encuentran ubicados en la segunda planta del **Bibat, Museo de Arqueología**, cuya visita recomendamos para complementar las informaciones extraídas del recorrido al yacimiento.